Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko abenduaren 30a, astelehena — 250 — Lunes, a 30 de diciembre de 2024

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## MUGIKORTASUNEKO, TURISMOKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

**Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia**

*Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuaren sorrera, turismo ibilgailuetan bidaiarien herri barruko edo herriarteko garraio publikoaren zerbitzua eskaintzeko.*

Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak ondoko Foru Agindua eman du 2024ko abenduaren 23an:

«Taxi-zerbitzua emateko erregimena araugintza-erregulazio oso zehatzaren mende egon izan da tradizionalki, eragindako guztientzat segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzearren. Eragindako horiek, batik bat, zerbitzuaren erabiltzaileak dira, baina baita profesionalak berak ere, oso ugariak baitira eta Estatu osoan banaturik baitaude. Erakundeei dagokienez, udalek taxi zerbitzuaren udal lizentziak emateko eskumena dute, autonomia erkidegoek, berriz, guri dagokigunez foru aldundiek, herriarteko garraioa egiteko baimenak ematen dituzte.

2/2000 Legeak, ekainaren 29koak, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo kotxez garraiatzeko Zerbitzu Publikoa Arautzeari buruzkoa, eta hura garatzeko Erregelamenduak, urriaren 15eko 243/2002 Dekretuaren bidez onartuak, arautzen dute arlo hau, euskal gizartearen beharrei erantzuteko. Beharrizan horiek aldakorrak dira, eta, horregatik, esparru malgua ezartzen saiatu izan da, erantzun arina eta eraginkorra eman ahal izateko.

Helburu hori lortzen laguntzen duen alderdietako bat, bi udalerriren edo gehiagoren artean trafiko-interakzioa dagoenean eta trafikoa sortzeko guneak kokatuta dauden udalerrietako baimen eta lizentzien titularrek behar beste artatzen ez dituzten garraio-premiak sortzen diren kasuetarako aurreikusitako Erregimen Bereziko Eremuak sortzeari buruzkoa da.

Gipuzkoari dagokionez eta, lurraldearen egitura geografikoa kontuan hartuta, bistakoa da eskualdeetako udalerrien artean trafikoaren interakzioa gertatzen dela eta, ondorioz hainbat azterlan egin dira erregimen bereziko eremu horiek zehazteko, zerbitzu horiek eskaintzeko eskualdekako banaketa bat egitearren, dauden baliabideak hobeto aprobetxatzeko aukera emango duen erregimen berezi bat ezarriz; izan ere baliabide horiek nahikoak dira baina gaizki banatuta daude.

2/2000 Legeak 20. artikuluan eta Erregelamenduak 65. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gipuzkoan erregimen bereziko eremuak sortzeko eskumena Foru Aldundiarena da, beti ere, eremu horietako udalen txostena jaso ondoren. Diputazioaren aldetik komenigarria iruditu zaigu eremu horiek sortzen joatea eremu horietako udalekin eta taxilariekin beharrezkoak diren akordioak erdietsi ondoren. Gure ustez, adostasunean oinarritutako bide hori funtsezkoa baita eskualde mailan zerbitzuen funtzionamenduaren arrakasta bermatzeko.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD, TURISMO Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

**Dirección General de Movilidad y Transporte Público**

*Aprobación de la constitución de la Zona de Régimen Especial de Donostialdea a los efectos de prestación del servicio de Transporte Público Urbano e Interurbano en Automóviles de Turismo.*

La diputada foral de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio, con fecha 23 de diciembre de 2024, ha dictado la siguiente Orden Foral:

«El régimen de prestación del servicio del taxi ha sido tradicionalmente una materia sometida a una regulación normativa muy detallada con el fin de garantizar el principio de seguridad jurídica para todos aquellos afectados, principalmente a los usuarios del mismo, pero también a los propios profesionales que en un número muy elevado se hallan distribuidos por toda la geografía del Estado. A nivel institucional, los Ayuntamientos ostentan la competencia para conceder las correspondientes licencias municipales mientras que las Comunidades Autónomas, en nuestro caso, las Diputaciones Forales, otorgan las autorizaciones de transporte interurbano.

La Ley 2/2000, de 29 de junio, de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles de Turismo, y su Reglamento de desarrollo, aprobado mediante Decreto 243/2002, de 15 de octubre, regulan esta materia, con el fin de atender las necesidades de la sociedad vasca, necesidades que resultan cambiantes por lo que se ha tratado de establecer un marco flexible y que pueda dar una respuesta ágil y eficaz a las mismas.

Uno de los aspectos que sin duda contribuye a este fin, es el relativo a la creación de Zonas de Régimen Especial previstas para los supuestos en que existe interacción de tráfico entre dos o más municipios y se deriven necesidades de transporte que no se encuentren suficientemente atendidas por personas titulares de autorizaciones y licencias correspondientes a los Municipios en que los puntos de generación de tráfico se hallen situados.

En el caso concreto de Gipuzkoa y, atendiendo a su configuración geográfica, la interacción de tráfico entre los diversos municipios de las comarcas es más que evidente y por ello se han realizado varios estudios que han definido estas Zonas de Régimen Especial con la finalidad de llegar a una comarcalización en la prestación de estos servicios mediante el establecimiento de un régimen específico que permitirá aprovechar mejor los recursos existentes y que, aunque se estima son suficientes, se hallan mal distribuidos.

Según lo dispuesto en el artículo 20 de la Ley 2/2000 y 65 de su Reglamento, la creación de las Zonas de Régimen Especial en este Territorio Histórico, corresponde a la Diputación Foral, previo informe de los Ayuntamientos a que afecten. Desde esta Diputación se ha considerado conveniente ir procediendo a la constitución de cada una de ellas tras alcanzar los pertinentes acuerdos con los Ayuntamientos y profesionales del taxi de dicha zona, por entender que este procedimiento basado en el consenso resulta un factor determinante a la hora de garantizar el éxito de funcionamiento de los servicios desde una perspectiva comarcal.

EK\CV GAO-I-2024-09532

Erregulazio berri honen bidez ez da lizentzia eta/edo baimen berririk eman beharrik izango, non eta behar beharrezkoak direla egiaztatzen ez den, legeak aurreikusten dituen zerbitzu mota ezberdinak bermatuko dira eta eskaintzaren eta eskariaren arteko beharrezko oreka lortuko da. Hori guztia sortuko diren erregimen bereziko eremuetako biztanleen onerako izango da, baita bertan zerbitzua eskaintzen duten profesionalen onerako ere.

Hori dela eta, Erregimen Bereziko Eremuak sortu izan dira, eta eremu horiek guztiek, gutxieneko esparru komun bat izan dute. Eremu bakoitzaren berezitasun espezifikoak, berriz, Erregimen Bereziko Eremu bakoitzean eratzen diren lan-batzordeek hartzen dituzten erabakietan jasotzen dira, non eragindako eragileak ordezkatuta dauden.

Donostialdean, Erregimen Bereziko Eremu bat eratzeko akordio bat lortu da, eta administrazioen arteko hitzarmen bat formalizatu da, Donostia, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Errenteria, Andoain, Usurbil, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako udalekin (2024ko azaroaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean). Hitzarmen horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiari Erregimen Bereziko Eremua sortzeko eskatu diote.

Administrazioen arteko hitzarmena aztertu ondoren, Foru Aldundiak komenigarritzat jo du Donostialdeko Araubide Bereziko Eremua sortzea, Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuburuaren 2024ko abenduaren 20ko txostenean jasotako baldintzen eta zehaztapenen arabera.

Halaber, Taxiaren Batzordeak 2024ko abenduaren 20an egindako bileran sortzearen aldeko iritzia eman du.

Ondorioz, Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako diputatuak, Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko zuzendari nagusiak proposatuta, honako hau

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Onartzea Donostialdeako Erregimen Bereziko Eremuaren sorrera, turismo ibilgailuetan bidaiarien herri barruko edo herriarteko garraio publikoaren zerbitzua eskaintzeko, ondorengo baldintzak kontuan hartuz:

1. Udalerriak: Donostia, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria.

2. Tarifa bateratua: Eremua osatzen duten udalerri guztietan tarifa bera ezarriko da zerbitzuaren arabera.

3. Zerbitzuen hasiera: Eremua osatzen duten udalerriren baten lizentzia duten ibilgailuek bere lurralde eremuko gainerako udaletan has dezakete zerbitzua, betiere parte hartzen duten udalerriek sinatutako administrazio arteko hitzarmenean jasotako termino eta baldintzetan.

4. Jarraipen Batzordea. Organo hori eratuko da udaletako ordezkariekin eta sektoreko profesionalekin. Besteak beste, ondorengo zereginak izango ditu eskualdeko batzordeak:

1.— Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuko arauak behar bezala betetzen direla zaintzea.

2.— Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremuari dagozkion gaiak proposatzea eta horien berri ematea.

*Bigarren.* Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean foru-agindu hau argitaratzea, Araubide Bereziko Eremua sortuz, eta bertan parte hartzen duten udalei horren berri ematea.

Foru Agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako administrazioarekiko auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Con esta nueva regulación se evita la creación de nuevas licencias y/autorizaciones, salvo que se haya comprobado que efectivamente se precisan, se garantizan las distintas clases de servicios que la Ley prevé y se logra el necesario equilibrio entre oferta y demanda, lo que sin duda redunda en beneficio de la población de cada una de las Zonas de Régimen Especial que se creen, así como de los profesionales que prestan el servicio.

Por ello, se han venido creando Zonas de Régimen Especial con un marco mínimo común a todas ellas, mientras que las peculiaridades específicas de cada una se recogen en los acuerdos que adopten las distintas Comisiones de trabajo que se constituyen en cada Zona de Régimen Especial y en las que se hallan representados los distintos agentes afectados.

En la zona de Donostialdea se ha logrado un acuerdo para constituir una Zona de Régimen Especial, y se ha formalizado un convenio interadministrativo en el que participan los Ayuntamientos de San Sebastián, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Errenteria, Andoain, Usurbil, Lezo, Oiartzun y Pasaia (Boletín Oficial de Gipuzkoa 13 de noviembre de 2024) mediante el cual solicitan a la Diputación Foral de Gipuzkoa la creación de la Zona de Régimen Especial.

Tras el análisis de dicho convenio interadministrativo, la Diputación Foral ha considerado conveniente aprobar la creación de la Zona de Régimen Especial de Donostialdea, en los términos y conforme a las condiciones que se recogen en el Informe del Jefe del Servicio de Movilidad y Transportes de 20 de diciembre de 2024.

Asimismo, la Comisión del Taxi en su reunión de fecha 20 de diciembre de 2024 se ha pronunciado favorable a su creación.

En su virtud, esta Diputada de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio, a propuesta del Director General de Movilidad y Transporte Público

RESUELVE

*Primero.* Aprobar la Constitución de la Zona de Régimen Especial de Donostialdea a los solos efectos de la prestación del servicio de Transporte Público Urbano e Interurbano en Automóviles de Turismo, de acuerdo con las siguientes condiciones:

1. Municipios integrantes: San Sebastián, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria.

2. Unificación tarifaria: La tarifa de aplicación, según el servicio que se trate, será común a todos los municipios integrantes.

3. Inicio de los Servicios: Los vehículos con licencia en algún municipio de esta Zona podrán iniciar el servicio en los demás comprendidos en su ámbito territorial y distintos al de su otorgamiento, siempre en los términos y condiciones recogidos en el convenio interadministrativo suscrito por los municipios participantes.

4. Comisión de seguimiento. Se constituirá este órgano con representación de Ayuntamientos y profesionales del sector, órgano al que corresponderá, entre otros:

1.— Velar por el correcto cumplimiento de las normas rectoras de la Zona de Régimen Especial de Donostialdea.

2.— Proponer e informar en relación con los asuntos concernientes a la Zona de Régimen Especial de Donostialdea.

*Segundo.* Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa la presente Orden Foral con la creación de la Zona de Régimen Especial y dar traslado de la misma a los ayuntamientos que participan en la misma.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer contra la misma recurso contencioso - administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

EK\CV GAO-I-2024-09532

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.»

Donostia, 2024ko abenduaren 23a.—Miren Itziar Miner Canflanca, idazkari teknikoa. (9532)

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta Diputada Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.»

San Sebastián, a 23 de diciembre de 2024.—La secretaria técnica, Miren Itziar Miner Canflanca. (9532)

EK\CV GAO-I-2024-09532